

BALIO PROPOSAMENA:

Gure proiektua beste proiektu batzuetatik desberdintzen dituen ezaugarri batzuk ditu, balio proposamen handi bat ematen dizkiotenak. Gure proiektua **nobedadea** da merkatuan aurkitzen ez den zerbait eskaintzen dugulako, gaur egun ez baitira aurkitzen honako erraztasunak eta laguntzak alergenoei ematen dizkieten enpresek. Honekin lotuta, gure proiektua estrategia **pertsonalizatua** erabiltzen du, bezero bakoitzarentzat desberdindutako zerbitzuak eskaintzen dituelako (bai jatetxeentzat, bai ordaintzen duten aplikazioaren erabiltzaileentzat).

Gure proiektuak alergenoen bizitza **erraztea** du helburu, jatetxeen menua aurretik ezagutzeko aukera izanik, bezeroen eta jabeen arteko harremana erraztuko dugulako. Argi dago alergikoen **osasuna zaintzea gure proiektuaren erdigunea** dela, haien babes eta ongizaterako diren laguntzak eskainiz. Hau guztia webgune eta aplikazio baten bitartez lortzeko aukera egongo da, erraztasun ezin hobe bat eskainiz. Gainera, goian adierazi dugunez, *freemium* patroia jarraitzen du gure enpresak, hasieran oinarritzko zerbitzuak, noski, dohainik izanik. Aurreko guztia kontuan izanik, **erabilgarritasuna nagusitzen da** (edonork QR kode bat eskaneatu ahal badu ere, hauen erabilera errazteko pausuak edo aholkuak adieraziko ditugulako).

Horrez gain, gure bezeroen osasuna zaintzeko hartutako konpromisuarekin jarraituz, gure inguruko jatetxeekin, batez ere **Km0-ko** produktuak erabiltzen dituztenekin, lan egingo dugu. Hauek sustatzean, bizimodu osasuntsu bat eta **ekologia ere sustatuko** dugu. Baita bertako produktuen kontsumoa handituz bertako ekonomia sustatzen dugu ere. Aldi berean, elikagaiak distantzia luzeetan garraiatzeak dakarren inpaktu ekologikoa minimizatzen dugu, hau da , kutsadura murriztu eta ingurumena errespetatu eta zaindu

